


ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko maiatzak 23 • 1355 zenbakia

**DOTORE JANTZITA
PLAZA ERDIA HARTZERA**



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasien da

dica fama
SUKALDEAK SOFAK

www.urrategiinteriorismo.com • Arretxeta 9 Etor Arretxeta 27





osasun gida

Dentistak

Odontologia Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
DENTO KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toralea Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 807
www.aratdental.com

@arat_klinika



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
MFL 0019

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibardental.com
www.eibardental.com



BISTA·EDER

Hortz Klinikak - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berehutsuak zu hebreto zaintzeko.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel.: 943 700 082 info@bistader.es

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 99 - 1. ed. Eibar
943 20 72 07 - 680 42 28 08
amaia@esnaoladentalologia.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / FAD
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tinoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943 702986



Unzaga Plaza

Hortz Klinikak - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

979 Kalegaitia

- INHIBITERRA
- KIDIA, LEONIAK
- Puntuko eta TRATAMENDIA
- KIDIAK + DEPRESIOAK
ANAGAITIA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



'Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz' liburua aurkeztu zuten astelehenean, Andretxean. Amaia Alvarez Uria eta June Fernandez Casete autoreak egon ziren bertan, eta euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren inguruan hausnartu zuten, besteak beste.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



PSE eta EH Bildu zertan zabilazte?

Lurperatzen gaituen paseoari Ez – Ekialdea Bai auzo elkar-tean guztiz harrituta jarraitzen dugu Eibarren nola egiten eta/edo egiten ez diren gauzak ikusita. Udaleko osoko Bilkuretan gaiak onartzen dira, baina gero ez dira betetzen. 2023 urtean Eibarko ekialdearen maketa bat egitea onartu zen; baina herritarrok ezin izan dugu hori ikusi, ez baita adostutakoa bete.

Hala nola, 2021. urtean Murrategi eremu degradatua- rentzat -horrela dago izendatua- Birgaitze Plan Berezia onartu zen. Udalak bi urte eta erdiko atzerapena omen daroa Murrategiko inbertsioaren tramitazioan, ondoren proiekturen bat abian jarri ahal izateko.

EH Bildu maketaren gaiarekin isilik dago, ez du tutik ere esaten. Murrategi kasuan utzikeria eta arduragabekeria aurpegiaritzen dio PSE eta alkateari. PSEko bozeramaileak, berriz, Murrategi proiektua aktibatuta dagoela erantzuten du, baina aurrera egiteko Diputazioa eta Eusko Jaurlari-tza inplikatu behar direla argudiatzen du, eta interesak bateratzea asko kostatzen dela. Gainera, alkateak berak zabarkeriaz jokatu izana leporatu dio EH Bilduri, Murra-tegi berrizteko funtsengatik (3 milioi euro). Horren arira gogora ekarri nahi dugu 2021. urtean bi alderdi politiko horiek Eibarko ekialdea biziberritzeko beraian adostasun-aren berri eman zutela.

Momentu honetan, herritarrok maketa gabe, Murrategi geldirik eta bertan zer egiteko asmorik ezagutu barik jarraitzen dugu. Horrez gain, EH Bildu eta PSE artean ados-tasuna baino desadostasunetik gehiago dagoela dirudi.

Bi horiek orain elkarri erasotzen eta ika-mikaka dabilta, nahiko itsusia iruditzen zaigun egoeran. Hori guztia nekez ulertzen dugu eta kezkatzeko modukoa dela iruditzen zaigu. Gauzak horrela, ez dirudi giro politiko hori onena denik hiriaren ekialdean kalitatezko proiektuak gauzatzeko. Horrela, gure buruari galdetzen diogu: bi hauek, EH Bildu eta PSEk, 2021. urtean Eibarko ekialdera-ko ze akordio mota egin zuten?

Lurperatzen gaituen paseoari Ez - Ekialde bai elkarte

Hortik esanak



Ettxerik gabeko emakumeak normalean ez ditugu ikusten, ez direlako etzaten kalean, eserita egoten dira banku batean, eta eguerdiko 14:00etatik 18:00etara etzaten dira. Etxegabeentzat dauden ostatu-baliabideak ere guztiz mas-kulinizatuta daude, emakumeek ez dituztelako erabiltzen. Batzuetan egoera horietan bakarrik daudela pentsatzeko joera izaten baita. Emakumeak, kalera ateratzen garenean, gizonak baino askoz ere hondatuago gaude. Kale egoeran dauden emakumeek pairatzen duten estigma ere badago; horregatik jasaten ditugu harreman oso kaltegarriak eta oso toxikoak kalean bukatu aurretik.

SONIA GORBEÑA, Bizitegi elkarteakoa

Txahalek esnea errape artifizialen bidez hartzen dute; esne hori ez da freskoa, hauts esnea da. Badirudi sistema horre-tan txahalak amengandik banatzea eraginkorragoa dela, ondoan jetziak diren amek sortzen duten esne barik, kan-potik ekarritako esne hauts industrialala baliatuta. Hauts esne hori beharbada oso ona da, guraso askok erabili izan dugu. Baina deigarria da bizidunen arteko harremanak murriztea sistemaren eraginkortasuna handitzeko ohiko bilakatu dela diseinatzeko ditugun teknologietan. Gizakiok ukiulu automatizatuaren barne bizi garela dirudi, “esnearen” bilakaeraren menpe.

DIANA FRANCO, UPV-EHUko irakaslea

Hemen bada jendea euskara ikasi edo euskaraz egin nahi ez duena. “No me ape” esango dizute, lotsagabe bezain oldarkor. Guk, oster, erdaraz egin behar dugu haiekin komunikatzeko. Haien logika da: euskaraz galdetu eta erdaraz erantzuten dizutenean, elebitasuna da; erdaraz galdetu eta euskaraz erantzuten duzunean, supremazis-moa. Iruzur galanta aurre aurrean.

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKO→ Hegaztien mokoa. “Ehizarixak esaten dabe oillagorra bere piku luzia lurrian sartuta egoten dala”.

PIKOR→ Eztarri urratua. “Iztarriko pikorrakin jaiki naiz eta berbarik egin ezinda nago”. Ale txiki eta biribila. “Edur-pikorrak dihardu”. Granoz beterikoa. “Azal pikorra dauka arpegixan”.

1959

Untzaga plaza,
Calbeton kaletik
ikusita

Eskubian, ertzean ikusten den taberna Tupi zaharra da, estalitako bere terrazarekin. Jendearen arropak-eta ikusita, argazkia seguruenik domeka edo jai-egunen batean, bazkal aurretik egindakoa da.

PLAZAOLA



Farmaziak

- BARIXAKUA 23
- EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- ZAPATUA 24
- EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- DOMEKA 25
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- ASTELEHENA 26
- EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 27
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)
- EGUAZTENA 28
- EGUNEZ | Mendiñueta (Urkizu, 6)
- EGUENA 29
- EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- BARIXAKUA 30
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Rosa Guede Rodriguez.
86 urte. 2025-05-14.
- Feli Mencia de la Fuente.
97 urte. 2025-05-15.
- Tiburcio Lasa Lasagabaster.
94 urte. 2025-05-17.
- Enrique Aguado Moral.
82 urte. 2025-05-18.
- Pablo Errasti Aretxabaleta.
73 urte. 2025-05-18.
- Jose Maria Iriondo Iruguenpagate.
89 urte. 2025-05-20.



Errebal Plazako hirugarren postua adjudikatzeko lehiaketa deitu du Udalak

Errebal Plazako 3. postu finkoaren emakida lizitaziora atera du Udalak. Ezkerretik hasita hirugarrena den postua adjudikatzeko baldintza-agirietan jaso dutenez, 15,49 m²-ko azalera dauka, 4,45 m²-ko biltegiarekin. Lizitazio-mota gisa ezarri den hileko kanona, bestalde, 244,26 eurokoa da, eta emakidaren iraupena 20 urtekoa. Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 9an,

arratsaldeko 18:00etan, amaituko da (elektronikoki zein aurrez aurre, Pegoran). Informazioa eta zehaztapen teknikoak udal-webgunean (www.eibar.eus) daude. Lehiaketara atera dutenaz gain, Errebaleen beste bi postu daude hutsik. Interesdunek postuak ikusi ahalko dituztela jakinarazi dute, aurretik eskatuta (ekonomia@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 84 51 telefonora deitu).

Kanpoko igerilekuetarako tarifa berriak zehaztu dituzte

Udalak kanpoko igerilekuetako abonuen tarifak zehaztu ditu udarako: banakako abonuen prezioa 55 eurokoa izango da 18 urtetik gorakoentzat, eta 35 eurokoa adin txikikoentzat; bonu familiarra, 21 urte arteko seme-alabak dituzten familientzat, 90 eurokoa izango da; eta gurasobakarreko familientzako 80 eurokoa; jubilatuentzat bi modalitate ezarri dira, banakakoa (35 euro) eta familiarra (55 euro). Horrez gain, tarifa murriztuak aurreikusten dira langabezia dau-denenentzat eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen dutenentzat.



Elkarretaratzea egingo da astelehenean, zezenzaleei lokalik ez ematea eskatzeko

Eibarko Pedrucho zezenzaleen lagunarteari udal-lokal bat lagatzearen kontra azaldu da Podemos Euskadi, baina asteleheneko batzordean onartu zuten tokiko gobernuaren proposamena, hau da, 75 metro karratuko lokal bat hamar urterako doan lagatzeko eskaera plenora eramatea. Horren kontra azaltzeko, astelehenean elkarretaratzea egingo da, 18:30ean Untzagan, Osoko Bilkuraren aurretik. Zezen-biden, Andretxea izan zena lagatzeko proposamena martxoaren 14an onartu zen, “zezen-lagu-

narteak berak eskatutakoari erantzunez, eta Kulturako arduradunak aldeko txostena aurkeztu ostean”. Isabel Fernandez Pejenaute Podemos-eko bozeramaileak salatu duenez, “Trabazi Asmorik Gabeko Elkarleen Erregistroan inskribatu eta bi hilabete eskasera onartuko dute”. Lokala lagatzeko arrazoirik ez dute ikusten: “Ezin da onartu udal-lokal bat esleipen bidez zezenzaleen elkarte bati doan ematea, are gutxiago denok dakigunean Eibarren aspalditik ez dela zezenke-tarik egiten”.



Unzaga elkartearen 50 urteak ospatzen

1975eko otsailean sortu zuten Unzaga elkarte gastronomikoa eta, sorreraren 50. urtemuga ospatzeko, bazkaria egin zuten maiatzaren 17an. Elkartea sortu zuten bazkideak eta haien ondorengoak, bi belaunaldi elkartu zituen ospakizunak, eta pozarren pasatu zuten eguna, lagun artean bapo bazkalduta.



Ikastolan elkarrekin ibilitako lagunek egun-pasa ederra egin zuten zapatuan

Zapatuan bazkaria egin zuten 1966an jaio eta ikastolan elkarrekin ibili ziren lagunak. Lorea Larrea, Mireia Uranga, Kontxi Kerexeta, Iñigo Garitagoitia, Jabi Lopez, Aitor Plazaola, Ibon Ugarteburu eta argazkiak eta egunaren kronika bidali dizkigun Abel Tellaetxe batu ziren: “Eguerdian elkartu ginen

Madarixan, Otarren hamaiketakoa egiteko. Gero bazkaria antolatu zuten Lorea Larrearen baserrira, Laraskandara joan ginen eta handik Lasturrera, trago bat hartzera. Hango elkartearen oso ondo jan genuen, eta han geratu ginen iluntzeraino, kontu kontari. Eibarren amaitu genuen eguna”.



Minbiziaren Aurkako Martxan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak antolatzen duen ekimenaren 4. edizioak Eibarko kaleak zeharkatuko ditu ekainaren 7an, zapatua. Hiru kilometroko martxa 11:00etan hasiko da, Untzaga plazan, eta amaiera leku berean izango da. Ekimenak milaka lagun bildu ohi ditu, eta aurrez ere antzeko parte-hartzea egotea espero dute antolatzaileek. Parte hartu nahi dutenek toki hauetan eros ditzakete dortsalak (kamiseta barne): RockTheSport.com webgunean, Eibarko jubilatutxetean, Ipurua kiroldegian, Amaña es la Caña kioskoan eta Minbiziaren Aurka elkarteak Eibarren duen egoitzan (Ardantza, 11), azken honetan goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Antolatzaileen berbetan, “martxaren helburua da gizartearen parte-hartzea areagotzea, jarduera fisiko solidario baten bitartez, minbizia ikusaraztea, gaixotasunaren inguruko tabu soziala ezabatzea, eta kirolaren bidez bizimodu osasungarria sustatzea”. Informazio gehiagorako enmarcha.contraelcancer.es webgunean begiratu edo 943 45 77 22 telefonora deitu daiteke.



Hurrengo barixakuan egingo dute eztanda Urki auzoko jaiek

Dena prest dago Urkiko jaiak ospatzeko. Auzoko jai batzordeak antolatu duen egitaraua datorren barixakuan hasiko da, 19:00etatik aurrera auzoko kale eta tabernetan egingo duten trikipoteoarekin. Arratsalde horretan ere dantza erakustaldia egingo da Koa dantza taldekoen eskutik. Eta gauerako Eibarko bi talderen kontzertua antolatu dute:

Judash eta The Vartools arituko dira, 22:30etik aurrera.

Zapatuko egitarauak egun osoa beteko du: 11:00etan hasiko da Txikikrosa (adinaren arabera ibilbideekin), Urki-Kurutzekuatik. Eguerdian paella lehiaketa egingo dute, Nuevo tabernaren atzeko aldean (euria egingo balu, eskolako patio estalian) izango da. Auzoko taberne-

tan izena emateko aukera dago eta irabazleentzat sariak banatuko dira. Arratsaldean, besteak beste, igel-toka txapelketa jokatu da, Rioja tabernako parkean; umeentzako jolasgunea egingo da (eskolako patioan), Kids&Party ludotekaren eskutik; kirol-kamiseten zozketa egingo dute; eta Irulitxa txarangak girotuta, kalejiran ibiliko dira. Gaueko kontzertua, berriz, Buen Castigo musika taldeak eskainiko du, 23:30ean hasita. Fito y Fitipaldis taldeari tributoa izango da, eta Javier Alzola, Fitorekin aritutako saxofoi-jolea, da taldekideetako bat.

4. Martxan minbiziaren aurka Eibarren

11:00h - Ipar Martxa eta Martxa 3km
Untzaga Plaza

Izena eman:

- + www.eibar.com/velocidad.es
- + Jubituzaren etxea
- + Ipuruia 3.000.000
- + Amara es la Cofa klasika
- + Minbiziaren Aurka Eibarren

egutia (Martxa 11 / 10.00etatik 12.00etara)



Ekainak
7
Eibar

informazio gehiago:

informazio@eibar.com

943 45 77 00






















Haurrak, txistua jotzen,
1977ko maiatzaren 31n
ospatutako Euskal Jaietan.
PLAZAOLA

Euskal Jaia zen ekimen nagusia, baina hari esker txistulari taldea zeukaten eta antzerki emanaldiak, hitzaldiak eta jaialdiak ere antolatzen zituzten. (Ramon) Saizarbitoria etorri zenekoa kontatzen du.

Euskal jaia, antzerkiak, hitzaldiak eta jaialdiak

Luis Alberto Aranberri Mendizabal Amatiño
(1945)



Bidebarrieta kalean jaio zen. Eibarko eskola nazionalen hasi zituen ikasketak eta Isasiko Corazonisten ikastetxean jarraitu. Geroago, hiru urtez, Bilbon eta Oronozen jarraitu zituen ikasketak. 18 urterekin Eibarrera itzuli eta aitaren lantegian hasi zen lanean; bertan aritu zen 13 urte inguruan. Tarte horretan, baina, bere benetako zaletasuna ondo errotuta zuen eta lantegiko lanarekin batera kazetaritzan hasi zen, Zeruko Argia aldizkarian. Horrekin batera, Eibarko Kultureko kide egin zen eta 60. hamarkadako Eibarko mugimendu euskaltzalean zeresan zuzena izan zuen.

Luis Alberto Aranberri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) Euskal Jaixari esker gero guk urte guztiko programaziñua egitten genduen. Begira, gero, kontu izan ba gero txistulari taldea zeguala. Gero, horrez gainera, antzerkiak antolatzen genduzela. Eta gero, zerak, jaialdixak Coliseuan eta Amayan (...) Eta nik horrelaxe ezagutu nittuan Uztapide, Matxin... halaxe ekarri genduan Nemesio Etxaniz, Ez Dok Amairu ta... (...) Hari esker ekartzen genduzen gero urte guztikuak. (...) Kuadrillan. Saizarbitoria etorri zanian beragaz juan giñan gero Chalchanera. Ta gu giñan eibartarrak. Saizarbitoriak orduan ez zuan asmatu, gizajuak (zentzurik onenian). Orduan etortzenda donostiar bat, gorriarenak egiten, eta Atahualpa Yupanquiren kankak kantatzen, ta ez dakit zer aldaketa aldarrikatzen... Eta guk ekarri, entzun, eta gero eruan genuen Chalchanera (...) Ta txanpaina edan! Joeeee! Harek ez zuen ulertzen ezer! Lehelengo gorriarenak egin eta gero... Gu oso jente normala giñan! (...).

Euskaraldia martxa betean

Maiatzaren 15ean abiatu zen Euskaraldia, eta Eibarren jai-giroan hasi genuen ariketa sozialaren laugarren edizioa, Eibarren AKEBAIren eskutik. Egitaraua Latuna Bando txarangaren musikaren erritmora hasi zen, eta Untzagan jarraitu zuen jaiak: Eibarko Hamaikako kide batzuk manifestua irakurri eta, jarraian, Euskaraldiko abestiaren Eibarko bertsioa kantatu zuen Jon Alonsok, ODE taldeko kideen, Eibarko Koro Gaztearen eta plaza bete zuten haurren laguntzarekin. 1.517 norbanakok eta 68 entitatek eman dute izena oraingoz Eibarren, baina egun hauetan ere, maiatzaren 25era arte, eman daiteke izena, www.euskaraldia.eus webgunean.



ARGAZKIAK



BIDEOA



Emakume ijitoen ahotsa eta erresistentzia

Kera emakume ijitoen elkarteak 'Erromani erresistentzia' izeneko hitzaldia eskainiko du hilaren 26an, 18:00etan, Andretxean. Palmira Dual Jimenez elkarteko koordinatzaileak azaldu digun bezala, solasaldi horren bitartez ijito herriaren historia ezagutzera eman nahi da, emakume ijitoen ahotsa eta borroka soziala erdigunean jarritz. Ekitaldi irekia izango da astelehenekoa eta herritar guztiei bertaratzea gomendatzen diete.



Gipuzkoako emakume ijitoen elkartea da Kera. Irunen jarduten dute batez ere, baina probintzia osoan egiten dituzte ekintzak eta euren presentzia indartzeko gogor dihardute lanean. Emakume gazteek bultzatzen dute elkartea, baina 11 eta 50 urte arteko kideak dituzte, belaunaldi ezberdinetako emakume-ijitoak ordezkatzuz. “30 emakume gaude Irungo taldean, ijito herrian egiten ditugun interbentzioak bertan egiten ditugulako batez ere. Azken finean, elkar ezagutzen dugu eta badakigu nolako baliabideak ditugun. Baina bestela, gizarteari dagozkion ekintzak eta abarrak Gipuzkoa osora zabaltzen ditugu. Beste herrietan ere interbentzioak eta egin ahal izateko lanean ari gara, baina hiru lagun gabiltza elkartean lan egiten (bi jardunaldi oso, esan dezakegu) eta ez dugu askoz gehiagorako denborarik. Ea dirulaguntza gehiago lortzeko aukera dugun herri ezberdinetan hezitzaileak jartzeko. Hori izango litza-teke gure ametsa”, argitu digu Palmira Dual koordinatzaileak. “Gogorik ez zaigu falta!”.

Kera berbaren jatorriaz galdetuta, zera esan digu koordinatzaileak: “Ijitoei erromaniera kendu ziguten, gure hizkuntza, eta bizirauteko modu bezala edo, erromaniera eta euskara batzen dituen hizkuntza garatu genuen, erromintxela. Bada, kera hitzak etxea esan





Kera elkarteak hainbat ekintza egiten ditu Gipuzkoako emakume ijitoen errealitatea ezagutarazteko, tartean Andretxean eskainiko duten 'Erromani erresistentzia' saioa. KERA

nahi du erromintxelan. Izan ere, Kerak emakume ijitoen etxea izan nahi du”, azaldu digu.

Gizarteari eta ijito herriari begira

Kera bi helbururekin sortu zen. “Batetik, ijito herriaren giza eskubideak bermatu nahi genituen. 600 urte daramatzagu Euskal Herrian eta gure giza eskubideak ez daude babestuta”, Dualek esan digunez. “Gizartean ezezagutza handia dago ijitoen inguruan. Estereotipo asko dago eta denak dira negatiboak, ez gaituztelako ezagutzen. Beraz, gizartea gai honetan sentsibilizatu nahi dugu hainbat ekintza eginez (hitzaldiak, tailerrak...) eta espazio sozialetan ijitoen ordezkaritza bermatuz”.

Elkartearen bigarren helburua ijito herriarekin lan egitea da, “eta gure elkarte emakumeei zuzenduta dagoenez, zehazki emakume ijitoekin lan egitea”, diosku koordinatzaileak. “Hainbat talde ditugu adinen arabera banatuta eta ahalduzko prozesua eskaintzen diegu. Gainera, denbora librerako aukerak ere ematen dizkiegu, euren herrietan zer dagoen adieraziz eta horrek euren egunerokoan nola lagundu ahal dien azalduz”.

Emakume ijitoekin egiten duten lan horretan, Keraren beste helburu bat da gazteek DBH-ko ikasketak amaitzea. “Horretarako, institutuetan prozesu horietan laguntzen ari gara. Eskolen eta familien arteko ezberdintasunak ijitoen kodeekin lantzen ditugu. Batetik, familiei eskola-sistemak nola funtzionatzen duen azaltzen diegu; eta bestetik, irakasleek gure bizitzaren dinamikak uler dezaten saiatzen gara. Hau da, bitartekari lanak egiten ditugu, eta zubiak sortzen ditugu emakume ijito gazteen eta irakasleen artean”, diosku Dualek.

Gipuzkoako emakume ijitoen Kera elkarteak 'Erromani erresistentzia' hitzaldia eskainiko du hilaren 26an, Andretxean

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:





Kera hitzak etxea esan nahi du erromintxelan, eta Kera elkartea emakume ijitoen etxea izatea nahi dute



Palmira Dual Jimenez da Kera elkartearen koordinatzailea. IRANTZU PASTOR (ARGIA)

Harrera ona eta beharrezkoa

Kera 2021. urtean hasi zen proiektuak eta abarrak finkatzen eta bere jarduerak “oso harrera ona” izan du gizarteari eta ijito herriari begira. “Gaur egun, elkar- teek eta erakundeek eurekin egoteko deitzen digute, eta hori oso positiboa da. Gure lana ijito herrian eta gizartearen ezagutarazteko lan handia egin dugu, eta oso pozik gaude. Harrera oso ona eta beharrezkoa izan da. ‘Beharrezkoa’ berba nahitaez irteten da, bai ijito herrian bai gizartearen”, kontatu digu koordinatzaileak.

Beharrezko lan horri gogotsu ekin dio Kerak, baina gogorra ere badela onartzen du Dualek. “Klitxe pila batekin eraman behar ditugu aurrera proiektu asko, baina harrera ona edukitzen ari gara”, diosku.

Erromani erresistentzia

Kerak garatzen dituen proiektuen artean kokatzen dira ‘Erromani erresistentzia’ izeneko hitzaldiak. Dualek esan digunaren arabera, hilaren 26ko solasaldia hiru zatitan banatuko da eta, beste edozein hitzaldi edo ekintzatan egiten duten bezala, historiara begira hasiko dute saioa. “Izan ere, hortik ulertzen da ijitoen jarrera eta gure bizitzaren dinamika”, argitzen digu.

Hitzaldiaren bigarren zatian emakume ijitoen feminismoa nola, nondik eta zergatik sortu zen azalduko dute. Eta hirugarrenik, komunikabideetan dagoen ijitofobiaz arituko dira. “Gaur egun, komunikabi- deek demaseko garrantzia dute gure bizitzan eta as- kotan ijitoen inguruko informazio okerrak ematen dituzte, horrek sortzen digun kaltearekin. Beraz, arlo hori modu positiboan nola landu daitekeen aztertuko dugu eta komunikabideetan hori saihesteko Keran sortu ditugun materialak aurkeztuko ditugu”, diosku koordinatzaileak.

Dualek eibartar guztiak gonbidatu nahi ditu hitzal- dira. “Ijito herria, bere historia eta abar ezagutzeko aukera ederra izango da. Esperientziak erakutsi digu oso hitzaldi potenteak izaten direla. Izan ere, norbe- rak ikusi eta entzun dezakeenetik guztiz kontrakoa jasotzen du hitzaldi hauetan. Normalean hitzaldiak oso ondo egon dira, oso harrera ona izan dute eta go- mendagarriak direla esan digu esperientziak”, Dualen berbetan. Beraz, baduzue zita Kerarekin, hilaren 26an, 18:00etan, Andretxean.

60. Euskal Jaia: baserritarrez jantziko gaituen kale ikuskizuna

Heldu da urteroko hitzordua, baserritar jantzita kalera irten eta dantzari egiteko aukera gehien eskainiko digun Euskal Jaia. Hiru eguneko egitarau osotua prestatu dute Klub Deportiboko Kultura batzordekoek: gaur, Kalian Jolasian, Tantanez Tantan eta kontzertuak; bihar, artisau eta baserritarren azoka, Deportonbolia, herri-kirolak, pala txapelketaren finalak, dantzaldia eta kantu-afaria; eta etzi, Euskal Jaiko kalejira, dantza jaialdia, herri-bazkaria, erromeria eta larrain-dantza popularra, Euskaraldiko amaiera ekitaldia ahaztu barik. On egin!



Mugi Panderoa, Mirari eta La Txama gaurko kontzertu jaialdian

Gure herriko **Mugi Panderoa** taldeak emango dio hasiera, Gantxillaren amaierarekin batera, Untzagan goizaldeko 03:00ak arte iraungo duen kontzertu-ekitaldiari. Eibartarrek 22:30ak arte joko dute, eta handik ordubetera hasiko du Mirari berea; azkenik, La Txamak ho-

rien erreleboa hartuko dute 01:30 inguruan. Hona hemen gurera datozen gainbegirada bat.

Mirari talde nafarra Urko Milagrok gidatutako proiektua da, oinarrian pop estiloa duena. Milagroren ahotsa eta gitarrarekin batera, Iker Fernandez tronpetak eta Aitor Herbon baxuak osatzen dute taldea. “Gauaren argitan” eta “Mundu berria” diskoak kaleratu dituzte. Taldearen izena sortzailearen abizenetik dator eta, pop estilotik aparte, rocka, erritmo latindarrak eta elektronikoaren erabilera ere aurkitu ditzazkegu euren abestietan.

La Txama Donostia eta Iruñea artean kokatzen den giro mexikarreko “corrido tumbado” musika taldea da, rantxerak, corridoak eta cumbiak nahasten dituztenak. 2024an

atera zuten “Fusilaren hotsa” autokoitzitako euren lehen diskoa. Tuli el Batxatuli rekintoa eta ahotza, Compa Luis gitarra eta ahotza, Aitor Valcarlos haizeak eta ahotza, Pello Armendariz, Peye Honey rap abeslaria, Afu haizeak eta ahotza eta Jon Viejo helikioia dira taldekideak.



Pop estiloko Mirari taldea.



Giro mexikarreko La Txamakoak.

Kale-giroa ez da faltako hiru egunotan

Gaur arratsaldean Tantanez Tantan ekitaldiak giro berezia sortuko du herrian, 19:00etan Urkizuko iturrian urez bete eta Untzagaraino Gantxillak egingo duen ibilbideari esker. Eibarko euskalgintzak antolatutako ekimenak txaranga eta fanfarreen animazioa izango du. Bihar goizeko Azokan ere ez



da girorik faltako eta, Jokin Bergara eta Eneko Beretxinaga bertsolarien saioekin batera, Txistupoteoak beste ikutu bat emango dio kaleko ikuskizunari. Eibarko Txistulariak izango da hor, txistulari ohien talde batekin, eta Eibarko trikitilari gazteak ere ez dira faltako, eguerdiko 12:00etatik 15:00ak arte. Arratsaldean, kantu-afarirako berotze ariketan, 19:30etik 21:30era Kantupoteoa girotuko du Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldeak. Afariosteko dantzaldia Miren G-ren ardura izango da. Etziko giroa Urkizutik bertatik piztuko da, eguerdian gaiteroak, joaldunak, herriko txistulariak, Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak eta Kezka eta Arkaitz dantza taldeekin egingo duten kalejirarekin. Bazkalostean Patxi eta Konpainiak eskainiko duen erromeriko dantzaldi gidatuak paso emango die asteburua agurtzeko dantzatuko diren



Txapeldun handi bat gure artean

Zorte hori dugu Eibarren, Diman jaio eta gurean bizi den herri-kirolariarekin. **Jose Martin Bustinza "Tubi"** 2015etik dihardu Euskal Jaiko inguruko herri-kirolsaioa antolatzen eta aurtengoa azkena izango dela diosku, "azken bi urteotako arazo fisikoek horretara behartuta. Plazan asko gozatu arren, gorputzak egunero bidaltzen dit mezuren bat: belauna ez denean, besoa; eta besoa ez denean, gerria".

Lastoarekin ez du parekorik izan eta, 25 urtetako ibilbidean, Euskal Herriko 30 txapel bereganatu ditu: 12 lastoa jasotzen eta 18 botatzen. Modalitate horietan indarrean dauden markak ere, jakina, berarenak dira: lastoa jasotzen, txapelketako bi minutuko saioan, 25 jasoaldi, 26.a segundo batera geratuta; lastoa botatzen, 6 metro eta 70 zentimetroko altuera lortutakoa da, 2009an. Hemendik aurrerako onena opa diogu bere burua herri-kirolak lagatzera behartuta ikusi duen "eibartarrari".

Zapatu goizean ohiko azoka

Urteroko bidetik, maiatzaren azken asteburuko zapatu goiz-eguerdiko artisau eta baserritarren Azokak hartuko du Euskal Jaia inguruko egitarauaren atali garrantzitsuenaren. Bost izango dira parte hartuko duten **baserritarrak**: ardi gazta eta ogi ekologikoa eskainiko duen Sosola, barazkiekin aurkeztuko den Loixola, ardi gazta eta barazkiak gure esku lagako dituen Mandiola Gañekua, ahuntz gazta salduko digun Egotza eta, azkenik, Elgoibarko Lizagasar baserrikoek ekarriko dizkiguten produktuak. Eibart elkarrekin antolatzen duen **artisauren** azokak, bestalde, hamabost postu



izango ditu: Hartara, Zu Gehi NI, Eskune, Eskulan, Isabel Orozco, One Martinez, Kikuxa, Karola, Pott, Zirrimarra, Feeling Good, Zapatari, Wood uhuru, Emeberhirubitiak eta Igor Unanue. 13:00ak arte iraungo duen azokarekin bat eginez, T. Etxebarria kalean **Deportonbolia** ere estreinatuko dute. Hainbat sari eta opari eramateko aukera izango da bertan (afariak, arropak, opariak...), Deporrek arropa erosteko aukerarekin batera.

Dantzan egiteko aukera mordoa eskaintzen digun asteburua

Duguna-Kezka Txiki-truke.- Zapatuan Iruñeko Duguna udal dantza taldeko gaztetxoak izango ditugu Kezkako gaztetxoekin trukea eginez, azken urteetan bezala. Euskal Jaian bisita egiten digute iruindarrek eta eibartarrak San Fermin jaietan joaten dira Iruñera dantzara. Toribio Etxebarrian eskainiko dute bi gaztetxo taldeek euren emanaldia.

Sorgin-dantza.- Euskal Jai domekako Untzagako jaialdi nagusian Kezkaren dantza eskolako ikasle guztiek, 200 inguru, Sorgin-dantza eskainiko dute eguerdian.

Añorgako dantzariak.- Domekako dantza talde gonbidatu nagusia Añorgako Arkaitz dantzari taldea izango da. 2026an 100 urte beteko ditu Euskal Herriko talde garrantzitsuenetakoa denak, eta aurten bertan Ameriketako Estatu Batuetan, Idahon, Boisen ospatuko den Jaialdi



Añorgako Arkaitz dantzari taldea.

handian Euskal Herriko ordezkaria izateko hautatua izan da.

Larrain-dantza herriko adin eta belaunaldi guztietako dantzarien eskutik. Urtero dantzatzen da la-

rrain-dantza Euskal Jaian, baina aurten goizeko saioan ere egingo da eta Eibarren dantzan aritu izan diren hainbat belaunaldi batuko dira horretarako. Iazko Deportiboaren 100. urteurrenean martxan jarritako dinamikari jarraipena eman diote eta Errebalen jendetza ibili da larrain-dantza ikasten batzuk eta errepasatzen beste batzuk, denok elkarrekin domekan dantzatzeke. Gainera, eibartarrak (eta mendaror bat) izango dira gaiteroak eta, Eibarko Musika Eskola eta Ustekabe Txarangako zenbait kiderekin, musikari banda ederra osatuta arituko dira, Arrasateko gaiteroek lagundu duten prestakuntzari esker. **Erromeria Patxi eta Konpaniarekin.** 25 urte bete ditu aurten Patxi Perez-ek Euskal Herriko plazak dantzan jartzen, eta bere taldearekin girotuko du domeka arratsaldeko dantza irekia.

Bada berritasunik eta baita aldaketa batzuk egiteko asmorik ere

Dagoeneko sei hamarkada osatu dituen Eibarko Euskal Jaian, hasierako espirituari jarraitzen badiote ere, urteen poderioz aldaketa batzuk egiteko ordua ere iristen da. Antolaketa lanetan diharduen taldea gaztetu egin da eta, diotenez, “badaiteke aurtengo kantu-afaria azkena izatea; domekako eguna beteaz izaten

da eta gaua luzatzeak nekea dakar”. Datorren urtean zapatuko afaria bazkaria bihurtzeko ideia darabilte; hala ere, aurten 230 lagun inguru bilduko dira karpako mahaien bueltan. Bestalde, afari-ostekoan Jainaga eta Narbaizak eskaintzen zuten erromeriak oraingoan Miren Gisasola DJ-aren kontua izango da.



Guztira 28 bikotek hartu dute parte.



Aurtengoa kantu-afariaren azken edizioa izan daiteke, antolatzaileek diotenez.

Bestalde, Euskal Jaiko Pala Txapelketaren 3. edizioko (Eibarko Pala Txapelketako bosgarrena) finalak honako lehiak izango ditu bihar goizean Astelenan: eibartarren artekoan, Larra-Korta vs Gisasola-Solo-gaistua; eta federatuen mailan, Egi-buru-Irizar vs Bikuña-Belamendia.

“Eibarko etxe bakoitzean behintzat futbolaren euskarazko hiztegi bana egotea da gure asmoa”

MIKEL LARRAÑAGA • SD Eibar Fundazioko presidenteordea



Futbolearen euskararen tokia aldarrikatzeko asmoz, SD Eibar Fundazioak futbolaren euskarazko hiztegi bat sortu du, futbolaren munduan gazteleraz esaten diren hitzak euskaraz nola diren azalduz. Horrela, Fundazioak triptiko moduko bat sortu du ehundik gora berba euskarara itzulita.

Futbolak berezko hiztegia dauka eta, askotan, euskaraz egiten dugunean ere, gaztelerazko edo ingelesezko berbak erabiltzen ditugu. Hori aurre egiteko sortu du euskarazko hiztegia Eibarrek eta, gizonezkoen lehen taldeak Huescaren aurka jokatuak neurketan banatzeaz gain, aldizkari honekin batera aurkitu dezakezue. Proiektua SD Eibarren Euskara Batzordeak sortu du eta Euskararen Baloia ekimena da horren ardatza. Hain zuzen ere, aste honetan erabaki dute zeintzuk diren aurtengo irabazleak: Mogel ikastola eta Aldatze ikastetxea.

Nola sortu da futbolaren euskarazko hiztegia sortzeko aukera?

Hiztegia gure politika baten ondorio da. Orain dela hila-bete gutxi, ...eta kitto! aldizkarian argitaratu zen gutun batean norbaitek aipatzen zuen Ipurua ingurutik zebilela entrenamendu bat ikustera joan zela eta euskara bakarrik entzun zuela. Klubaren Euskara Batzordean egin den lanarengatik da hori horrela. Gaur egun esan dezakegu gure harrobiko neska-mutilek euskara bakarrik erabiltzen dutela. Hori lortu eta gero, euskara bateratua lortzea zen helburua. Futbolearen nahiko argot berezia dago eta hori paperera eraman nahi genuen,

Emun-en laguntzarekin euskarara itzulita. Horrela, hiztegia gure ume guztiek dute eta futbol zelaian ere zaleei banatu izan zaie. Izan ere, hori ere beste helburu potente bat da: Ipuruako harmailetan euskaraz gehiago egitea. Eibarko etxe bakoitzean behintzat hiztegi bana egotea da gure asmoa.

Aipatutako futbolaren argot hori oso barneratuta dago zaleengan. Zaila izango da ohiturak aldatzea?

Hitz batzuen erabilera aldatzea badakigu zaila dela, baina asmoa da neurri batean ohiturak aldatzea. Umeak entrenatzen ari direnean, adibidez, 'lateral' esan beharrean 'hegalekoa' esatea, eta abar.

Hiztegia ez da izan futbolearen euskarazko berbak erabiltzearen alde egin duzuen lehenengo egitasmoa, ezta?

Hori da! 2019an ...eta kitto! Euskara Elkartearekin poster bat sortu genuen, irudien bitartez futbolaren inguruko berbak euskaraz nola esaten ziren azaltzen zuena. Antzeko egitasmoa izan zen eta bata bestearen osagarri izan daitezke. Posterrak kiroldegietara eta ikastetxeetara bidali genituen, eta taberna askotan ere ikusi izan ditugu eskegita. Jokoa eman dute, jendeak asko begiratzen dituelako. Eta jokoak aipatuz, hiztegiarekin ere asmatu dugu zerbait...

Jolas moduko bat?



SD Eibarren Euskara Batzordeak urteak daramatza klubean euskararen erabilera bultzatzen. EKHIBELAR

Bai, hori da. Triptikoaren atzeko aldean ikusi daitekeen bezala, erronka bat proposatzen dugu: partidu bakoitzean hiztegiko bost erabiltzea, esaldiak sortzea eta lagunei erakustea, eta sare sozialetan hiztegiko hitzak erabiltzen bideoa zabaltzea #EuskararenBaloia traolarekin. Gainera, Euskararen Baloia ekitaldi bakoitzean etorri diren ikasleei hiztegia banatu diegu eta eskoletan erabiltzeko materiala izatea ere bada gure asmoa.

Ez dira Euskararen Baloia ekitaldietan banatzen dituzuen gauza bakarrik, ezta?

Ekitaldi bakoitzean ikasle bakoitzak Euskararen Baloia erreplika duen giltzatakhoa, posterra eta hiztegi bana eramaten du, eta gela bakoitzari baloia beste erreplika handiago bat ematen diegu. Baloi horrek eurekin jarraituko du gelan, urtetik urtera, Lehen Hezkuntza amaitu arte. Irakasleak mahai gainean edukitzen du eta baten batek erdarara jotzen badu, baloia erabiltzen du euskaraz egitea gogorarazteko. Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzari esker banatu ditzakegu hainbeste gauza, baina ez nuke dirulaguntza bakarrik aipatuko, baizik eta euren gertutasuna eta babesa. Egitasmo honetan asko inplikatu

“Futboleko nahiko argot berezia dago eta hori paperera eraman nahi genuen, Emun-en laguntzarekin euskarara itzulita”

dira eta Euskararen Baloia proiektua Euskadiko beste klubetan aplikatzea nahiko lukete.

Euskararen Baloia proiektu arrakastatsua izan den seinale da hori, ezta?

Euskararen Batzordea martxan jarri genuenean, helburu nagusia euskararen erabilera indartzea zen. Laster konturatu ginen euskararen etorkizuna umeen ahoan dagoela; eurek euskaraz eginez gero, euskarak aurrera egingo lukeela. Horregatik sortu ditugu Euskararen Baloia, hiztegia, eta abar. Euskara Batzordean harrobiko teknikari bat dago eta bere eskutik ume guztiak euskaraz jarri ditugu.

“Gazte militante gehienek nahiago dute bollera berba erabili, kutsu borrokalaria ikusten diotelako”

AMAIA ALVAREZ URIA ETA JONE FERNANDEZ CASETE • Idazle eta kazetari feministak



‘Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz’ liburua aurkeztu zuten Amaia Alvarez Uria idazle, ikerlari eta irakasle feministak eta June Fernandez Casete kazetari feministak. Liburuan euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertzen dute, eta horren inguruan hausnartu zuten Andretxean elkartu zirenekin.

Zinegoak nazioarteko film jaialdiak Fernandezi liburua egitean proposatu zion eta zenbait galderari erantzuna ematea zen hasierako asmoa: “Nola esaten dugu lesbiana euskaraz? Nola izendatzen dugu gure burua, gure praktika, gure subjektu politikoa?”, besteak beste. Horretarako, Alvarezekin harremanetan jarri eta elkarlanean hasi ziren, oraindik ere bizi-bizirik dagoen liburua sortuz.

Mariokerrak terminoa erabiltzen duzue izenburuan, baina zer esan nahi duzue horrekin?

ALVAREZ: “Nola esan/izan bollera euskaraz?” galderari erantzuna bilatzen hasi ginen. Izan ere, bollera hitza erdarazkoa da, baina nola esan euskaraz? Begiratu genituen sortuta zeuden hitz batzuk, baina guk geuk berba bat sortzea erabaki genuen: Mariokerrak. Existitzen da beste adiera batzuekin, baina ‘okerrak’ barne zuen hitz bat hartzea egokia zela pentsatu genuen guk nahi genuena irudikatzeko.

FERNANDEZ: Proiektuaren ildo bat gaztelez esaten ditugun hitzak euskaratzea zen eta hor, bollera berbaz gain, queer ingelesezko berba ere agertzen zaigu. “Arrarotxo” esan nahi du queer hitzak eta okerrak berba ere erabili izan da hainbat queer proiektutan

(Bideokerrak, adibidez). Queer aktibismoaz ere hitz egiten dugu, gaur egun asko kritikatzan dena asko ezagutu barik. LGTBI mugimenduaren parekoa da, baina normalizazioa edo asimilazioa zalantzan jartzen du, eta gure ezberdintasunak eta disidentzia aldarrikatzan ditu.

Bollera berba erabiltzen duzue. Lesbiana izendatzea baino haratago doan terminoa da?

FERNANDEZ: Queer mugimenduaren estrategia bat izan da iraina erabiltzea eta irainaz jabetzea harrotasun kutsuarekin. Adibidez, horrela erabiltzen dira ‘marika’, ‘bollera’, ‘travelo’ eta ‘viciosa’ berbak. Orduan, bollera euskaraz nola esaten den aztertzen aritu garenean, ikusi dugu belaunaldien arabera ezberdin esaten dela. Adibidez, ikusi dugu lesbiana nagusienentzat lesbiana hitza oso politikoa eta erradikala dela, 60. edo 70. hamarkadan publikoki “ni lesbiana naiz” esatea apurtzailea zelako. Gazteentzat, oster, badirudi homosexualitatea gizartean onartuta dagoela, baina jendeak gutaz espero duena da arau heteropatriarkalak onartzea. Hau da, “onartzen zaitugu, beti ere, ezkontzen bazara, seme-alabak badituzu eta normala baldin bazara”. Horren aurrean, gazte militante gehienek nahiago dute bollera berba erabili, kutsu borrokalaria ikusten diotelako.



Andretxean aurkeztu zuten 'Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz' liburua astelehenean. EKHI BELAR

Liburua Zinegoak jaialdiaren enkargua izan zen, baina nolako bidea hartu du? Uste zenuena baino gehiagorako eman du gaiak?

ALVAREZ: Enkarguaren lehen xedea hitzak bilatzea eta gure praktikak, bizimodua eta identitatea izendatzea zen. Beraz, lehenengo fasean, hitzak bilatzen hasi ginen eta itzulpenekin esku-orria sortu genuen eta baita 'bollo bertso saioak' ere. Bigarren fasean, neska talde feministei euskaraz nola bizi ziren galdetzen hasi ginen, ea euskarak euren militantzian zein toki zuen.

FERNANDEZ: Zinegoak-ek proposatutako proiektua webgune batean jaso zen (zinegoak.com/EU/euskal-opil-hiztegia). Glosarioa 'Gay hiztegia' liburuan oinarritu zen eta Txalaparta argitaletxearekin harremanetan jarri ginen antzeko gauza bat egiteko asmoa genuela esateko. Oso ondo iruditu zitzairen eta argitaratzeko prest zeudela esan ziguten. Orduan, bi urtez Zinegoak-en webguneko lana egin genuen (bigarren urtean, sorkuntza atala gehitu genuen), eta gero analisía egin genuen libururako. Horrela, nahiko Frankenstein gelditu zen liburua, lau atalekin.

Liburuan euskara eta bollera komunitatea gurutza-

“Esan daiteke Euskal Herrian bollera munduaren inguruan egiten den guztia euskaraz egiten dela”

tzen dituzue. Zein dira bi ardatz horien arteko elkarguneak eta tentsio puntuak? Zer ondorioztatu duzue harreman horretatik?

ALVAREZ: Ikusi dugu euskalgintza eta lesbofeminismoa beti ez direla uztartuta egon eta ez dela lanketa uztarturik egin orain dela gutxira arte, baina garapen bat ikusi dugu. Gaur egun gero eta euskara gehiago erabiltzen da lesbofeminismoan.

FERNANDEZ: Zentzu horretan, adierazgarria da lesbiana nagusiek esaten dutena: “Gaztetan, lesbiana eta euskalduna izatea ura eta olio bezala zen niretzat. Antza, eremu euskaldunak oso heteroak ziren,

Elkarriketaren
BIDEOA

eta eremu lesbianoak eta feministak oso erdaldunak. Orduan, inoiz ezin nintzen ni neu izan”. Aldiz, gazteek, Gipuzkoan batez ere, bollerismoan euskaraz militatzen dutela esaten dute, eta gero eta kontzientzia handiagoa dagoela sexu disidentzia praktikatzera koan hizkuntza zapaldu bat edo disidentea erabiltzeko. Hau da, horrek zentzua duela eta hor elkartzea dagoela. Hor ditugu Bollurriak bezalako egitasmoak, Altxa Lili kabareta Ipar Euskal Herrian, Bekatorosoa jaialdia... Esan daiteke Euskal Herrian bollera munduaren inguruan egiten den guztia euskaraz egiten dela.

ALVAREZ: Transfeminismoaren goraldiarekin, belaunaldi berriek beste modu batean bizi dute militantzia oro har, eta gero eta euskaldunagoa da.

FERNANDEZ: Bestalde, euskal kultura asko ekartzen dugu eta, horretarako, Amaiak analisisa egin du ikusteko nolakoa den lesbianen ordezkartza euskal kulturaren. Gazteen belaunaldi oso potente bat dagoela ikusten da, batez ere poetena (Leire Vargas, Oihana Arana, Elena Olave...). Den-denek poesia euskaraz egiten dute bollera identitate batetik. Bertso munduan ere oso nabarmena da arlo hori. Ez bertsolari jakin batzuetan bakarrik, baizik eta kolektiboan, eta horren adibide da ‘Bollo bertso saioak’ egitearen dinamika.

Liburuak bi urteko ibilbidea egin du, baina gizartean bizi diren aldaketa azkarrak kontuan hartuta, dagoeneko atzean geratzen edo zaharkitzen ari dela esango zenukete?

ALVAREZ: Liburu baten bizitza oso laburra da. Lehenengo urtean aurkezpenak egiten dituzu, hurrengo urtean irakurle taldeetan jarraitzen du bidea egiten eta hirugarren urtetik aurrera misterio bat da, baina hau da hirugarren urtea eta hemen gaude, Andretxean. Ni oso pozik nago, eta zu, June?

FERNANDEZ: Baita ni ere! Bestalde, egia da queer munduan euskararekin eta hizkerarekin jolastearen dinamika oso presente dagoela eta hor zerbait bitxia gertatu zitzaigun: liburuak itxi behar genuen eta, adibidez, Bekatorosa jaialdia sortu zuten eta hitz hori glosarioan sartzeko beharra ikusi genuen; edo ‘tuli-tuli’



“Transfeminismoaren goraldiarekin, belaunaldi berriek beste modu batean bizi dute militantzia oro har, eta gero eta euskaldunagoa da”

berba cruising esateko, aspaldi Iruñean erabiltzen zena eta Yogurina Borovak eta Albina Stardustek berpiztu dutena. Gaur egun ere jendeak esaten digu euren herrian hau edo bestea esaten dela, eta polita da sentitzea beti gaudela bilaketa horretan. Gainera, ondo legoke liburuaren edukia material moduan erabiltzea eskoletan, adibidez.

ALVAREZ: Itzultzaileek eta zuzentzaileek ere interesa agertu dute, hizkuntzaren profesionalak direlako. Lexiko berria eta hizkuntzaren eta horri buruz hausnarketa egiten duen kolektiboa da. Interesgarria izan da liburuak egin duen bidea eta espero dezagun etorkizun luzea edukitzea.



IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA

Marea ingelesa

Nork esango zion kazetari honi futbolaren inguruan hitz egitera ausartuko zenik. Bada, hizkuntza ohiturak aldatzeko kanpaina betean, azken 48 orduetan ikusi eta bizi dudanean jarri nahi dut fokua. Gaztelanirik ez dut entzun, nahiz eta ingelesa bai.

Euskal Herriko prentsan Europa Ligako finala izan dugu titularretan: *“Bilbora heldu da marea ingelesa”, “Ingelesaldia”, “Zale britainiarrek jai giroa ekarri dute Bilboko kaleetara”*... Donostiako Parte Zaharrean liskarrak sortu dituzte Manchester United eta Tottenham taldeetako zaleek. Ez dakit azken titularra idatzi duenak Gipuzkoako hiriburuko ekintza festa giroaren parte kontsideratuko ote duen... batek daki.

Asteazkenean hasi zen uholdea. Guztira, 80.000 hooligan mozkorti. Bilbon, lanera bidean ikusi nituen lehen zaleak: gizonak ia denak, taldeka, praka motzetan, eta terrazetan sakabanatuta lehenengo edariarekin. Arratsaldean lagun batekin Alde Zaharretik ibili nintzen. Lehenengo tragoarekin kalera irten berritan, bi gizon hurbildu zitzaizkigun parranda non zen galdezka etab. Luzez izan ziren gurekin hizketan, espazio pertsonal handia hartuz, haiekin parrandan irteteko eskatuz... Egoera argia zen: haiek jai giroan zeuden eta punto. Gu, emakumeak eta euskaldunak, bigarren maila batean ginen.

Egun hauetan erabat maskulinizatu da Bilbo, kaleak blokeatuta egon dira eta bizilagunen egunerokoan eragina izan du. Zaleekin lotuta ezagutarazi dira gertaera gehiago: semaforoak erauzi dituzte; Palestinar bandera eskegita izateagatik Yid Armyko sionistek euskal bizilagunak mehatxatu dituzte; Bilboko Plaza Barriko aldamioetara iritsi dira hooliganak: oiuhu artean zaleek banderak eskegi dituzte, horietako bat biluzik egon da..., eta toki berean bizilagun batek bere etxea defendatu du zalerik ez sartzeko. Gizon mozkorti bat ere grabatu du telebista batek korronte erdian zakila aterata txiza egiten... baina ez du axola.

Besterik gabe, gure herriak behar duen benetako olatua morea dela esango nuke nik.

Iritzi artikulua hau partida egunean idazten nabil. Kanpai hotsek jo dute arratsaldeko seietan, ingelesez oihuak tarteko. Ea biharko itsasoak zer dakarren.

**“Egun hauetan
erabat
maskulinizatu
da Bilbo, kaleak
blokeatuta egon
dira eta bizilagunen
egunerokoan
eragina izan du”**

Lau domina Kalamuakoentzat Gipuzkoako alebin mailako txapelketan

Aurreko domekan Urnietan jokatuak alebin mailako Gipuzkoako txapelketan zilarrezko bi domina eta brontzezko beste bi irabazi zituzten gure herriko judoek. Kalamuako Uxue Gutierrez eta Josu Garro finaletan izan ziren, eta Raydel Marquez eta Amets Alonso brontzearekin itzuli ziren. 40 kilotik beherakoetan ordura arte borrokarik galdu gabe iritsi zen Uxuek

galdutako finalean, Kalamuak bere kexa agertu zuen epaileak hartutako erabakiaren aurka.

Bestalde, Eibarko klubak oraingoan ere Andorrako Nazioartekoan hartu zuen parte, bere 34. edizioan, eta bertan Aner Gonzalezek brontzezko domina irabazi zuen infantil mailan, Doha Shrir eta Sara Azpiaz judoek maila eman zuten ekitaldian.



Kalamuako laukotea Markel Simon klubeko ordezkariarekin.



Iñaki Goikoetxeak hartuko du Yeraí Martinen lekukoa F Ligako SD Eibarren

Denboraldi baterako sinatu du Iñaki Goikoetxea debarrak SD Eibarko emakumezkoen lehen taldea gidatzeko hartutako konpromisoan. Rocio Candal klubeko kirol zuzendaritzan sartu ostean, emakumezkoen lehen taldeko entrenatzailea proiektu berria osatzen jarraitzeko ezinbesteko lehen pieza izan da. Entrenatzaile berria Rea-

leko emakumezkoen lehen taldeko bigarren entrenatzailea izan zen hiru denboralditan, 2018tik 2020ra bitartean. Dominikar Errepublikako Selektzioan denboraldi bat eman ondoren, Real Unioneko entrenatzaile jardun zuen, taldeak RFEF 1. mailari eustea lortuz. 2023-24an Hypermotion Ligako SD Amorebietan bigarren entrenatzaile izan zen.

600 parte-hartzaitetik gora izango du Sanjuanetako 4. futbol-txapelketak

Gero eta indar handiagoa hartzen doa San Juan jaien inguruko ekimen horrek. "IPQ Futbol 7 Txapelketaren laugarren edizioa ekainaren 14an, zapatuan, jokatu da Unbeko instalazioetan eta, formatuari dagokionez, parte hartuko duten 40 taldeak zortzi multzotan banatu dira, bost bakoitzeko. Edizio honetan, gainera, emakumezkoen sei taldek eta beste hiru mistok hartuko dute parte. Kirola eta parte-hartzea sustatu nahi duen

ekimena borobiltzeko, Errebalen egingo duten afariarekin amaituko dute eguna. Bestalde, zapatu honetan Coliseon egingo duten ekitaldian taldeen zozketa egingo da, antolatzaileek edizio honetarako prestatu dituzten sorpresak iragartzeaz gain.

Unbeko instalazioetan egindako aurkezpenean Asier Diez, Unai Arizaga eta Ander Gabilondo antolatetako kideekin batera Jon Iraola alkatea eta Andoni Amezttoy Kirol



Astlehenean Unben bertan egindako aurkezpenaren irudia.

Ipuruako gimnastek 14 domina eta plenoa lortu zuten Amateur txapelketan

Aurreko zapatuan jokaturako Gipuzkoako Amateur txapelketan Ipurua kluba ordezkatu zuten bi taldeek eta bakarkako 16 gimnastek, Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortu zuten. Master A mailan Uxue Etxeberriak zilarra lortu zuen mazoekin eta brontzea sailkapen orokorrean; jubenil A mailan Yuma Otañak hiru zilar jaso zituen eta Lia Romano hirugarren izan zen orokorrean; jubenil B mailan Olatz Vieirak zilarra lortu zuen pilotarekin eta Irati Unamunok brontzea zintarekin, bien arteko bikotea bigarren geratzeaz aparte, eta Gorane Mendibek zintarekin zilarra lortzeaz gain hirugarren sailkatu zen orokorrean; kadete mailan, azkenik, Lur Bilbaok

3. postua egin zuen uztaiarekin, Izaro Martinezek postu bera mazoekin, eta Bilbaok eta Arrate Aizpuruk osatutako bikotearentzat izan zen brontzea sailkapen orokorrean.

Emaizta bikainak lortu zituzten Ipuruakoek ere aurreko asteburuan jokaturako federatu absolutuen Euskadiko txapelketan. Hor Haizeder Arguiz hirugarren geratu zen sailkapen orokorrean, zintarekin zilarra lortzeaz gain, horrela Espainiako Bakarkako txapelketarako txartela eskuratuz. Brontzea lortu zuten Nahia Arguizek zintarekin eta Nerea Alonsok pilotarekin.

Bihar Ipuruako talde bat eta bost gimnasta bakarka izango dira Gas-teizen jokaturako diren Eskolarte-



Ipuruako jubenil taldea eta banakako txapelketan parte hartu zutenak.

ko Jokoetan. Eta etzi Euskadiko Amateur txapelketa izango da jo-koan Durangon, senior eta jubenil mailetarako.

25-26

IKASTURTERAKO

Ikasle berrien

MATRIKULAZIOA

Ekainaren 2tik 13ra

FACEBOOK/INSTAGRAM/YOUTUBE

@eibarkomusikaeskola

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus

943702725

Iradierrekin senidetze eguna eta Eibarko Itzulia Deporrek mendizaleen ikuspuntuan

Ekainaren 1a egun berezia izango da Klub Deportiboko mendi batzordekoentzat, egun horretan Manuel Iradier Txangolari Elkartearekin senidetze-eguna izango dutelako. Deporrek parte-hartze aktiboa izan zuen Gasteizko elkartearen sorreran eta, senidetasun horri jarraituz, iaz Gasteizen egindako topaketari oraingo honek jarraituko dio.

Domeka horretako egitarauak honakoari jarraituko dio: 08:30, autobusa; 09:00, Ixuatik Urkora eta buelta; 10:30, Ixuatik Kalamuarantz, Deporrek iturrien bidetik; 11:30, Kalamuako parlamentuan hamaiketako; 12:15, Kalamuako puntan argazkia; 13:45, Arraten gerraren inguruko ikus-entzunezkoa; eta 14:30, bazkaria Depor tabernan. Plaza mugatuak izango dira eta prezioa 40 eurokoa da. Izena mendia@deporeibar.com helbidetan eman daiteke.

Bestalde, bi urtetik behin egiten den Eibarko Itzulia ere atejoka

dugu, ekainaren 7an (zapatua) egingo baita. Goizeko 07:00etan abiatuko da Deportiboaren aurretik eta bi aukera egongo dira: luzeak 34 kilometro izango ditu, 2.255 metroko desnibel positiboarekin; eta laburrak 18 kilometro eta erdi, 1.145 metroko desnibelarekin, ibilbide erdi hori Azitainen amaitzeko. Korrikalarientzat izan ezik, irteera neutralizatua egingo dute, parte-hartzaile guztiak horretarako jarritako zintaren atzetik joateko Olarreagaraino. Bi anoa postu egongo dira, bat Goimendi auzoko Gure Basetxea txabolan eta bestea Arrateko Santutegian. Klubak jateko zerbait eskainiko die parte-hartzaileei Depor Tabernan jardunaldiaren amaieran eta baleak hartu ahal izango dira Asurtzako anoa postuan. Itzulia doan bada ere, komenigarria da izena ematea anoa postu horiek antolatzeko (<https://labur.eus/EibarkoItzulia2025>). Ibilaldiko tontorrak ho-



nakoak dira: Egoarbitza (723 m), Azkonabieta (720 m), Asurtzamen-di (653 m), Galdaramiño (663 m), Topinburu (588 m), Ilordo (527 m), Arrate (535 m), Aizketa (701 m), Akondia (747 m), Kalamua (762 m) eta Urko (788 m).

Egun horretako kamisetak ere salgai daude Klub Deportiboan 12 eurotan, martitzenetik barixakuetara, arratsaldeko 18:00etatik 20:30ak arte.

Udabertrailak ibilbide goxoa eskaini zien parte-hartzaileei

Deporreko Mendi Taldeak eta Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako Udabertraillean bildu zen

lagun taldeak udaberriko eguraldi zoragarriak lagunduta prestatutako ibilbideaz gozatu zuen (16,8km eta



Aurreko asteburuan Udabertraillean parte hartu zuten gehienak biltzen dituen argazkia.

848m igoera metatua). Partaidetza polita izan zen, 30 mendi korrikalari inguru bildu baitziren ekitaldian eta, nahiz eta aurreko egunetako euriak toki batzuetan lokatza pilatu, ibilbide goxoa topatu zuten ordu horietan. Gehienentzat berriak ziren ibilbideak ezagutzeko aukera izan zuten, parte-hartzaileek alderdi hori asko eskertuz. Korrikalariek gustora amaitu zuten, giro ezin hobean, elkar ezagutu eta esperientziak partekatzeko aukeraz baliatuz. Hurrengo trail irteera uda ostean izango da, urriko Udazken-traillean hain zuten.



Euskararen olatua gaur arratsaldean ailegatuko da Eibarrera

Tantanez tantan, gaur arratsaldean zeharkatuko du herria euskararen aldeko olatuak. 19:00etan abiatuko da Urkizutik, bertako iturrian beteko da urez gantxilla eta eskuz esku Untzagaraino eramango dugu. "Geu izango gara euskararen transmisio-katea eta horrela eutsi behar diogu euskarari, bete-betea", dio antolatzaile den Euskalgintza taldeak. 700 lagun beharko dira ibil-

bide osoa betetzeko eta, beraz, dei egiten diete herritarrei, "arropa urdina eta koadrodun zapia jantzi eta jar zaitezte ibilbideko tarte batean, ozen ohikatu dezagun Eibarren euskaraz bizi nahi dugula". Jai-giroan egingo du ibilbidea gantxillak, Ustekabe txarangak eta Musika Eskolako soinu-joleek lagunduta, eta aurten ere ez dute kalerik egingo Eibar BHIko hankapaloek.



Aitziber Badiola izan da berriz...eta kitto!-n

Apirilean izandako arrakastaren ondoren, itxura pertsonalaren inguruko bigarren saioa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Aitziber Badiola aditua etorri zen eguaztenean bigarren euskaraz elkartera eta bertan bildutako dozena bat ikasleri azalpenak eta aholkuak eman zizkien: koloreak itxura pertsonalean duen garrantzia, gure gorputza nola onartu eta potentziatu eta estilo edo esentzia propioa nola landuren bueltan.

Miren Agur Meabek agurtu du Idazlearekin Harixa Emoten

Martitzenean egin zen Harixa Emoten literatur tertulien ikasturteko azken saioa. Miren Agur Meabe izan zen azkeneko gonbidatua, irakurle lekeitiarraren "Itzulerak" liburua irakurri baitute euskarazko irakurle-taldeko kideek. Aukera ezin hobea izan zuten liburuari buruzko galderak eta iruzkinak egiteko. Saiook Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dituzte elkarlanean eta Ainhua Aldazabalen gidaritzapean egiten dira. Udazkenean ekingo diote ikasturte berriari.

Azukreak eta serbilletak banatu ditu aste honetan ...eta kitto!-k

Ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko kanpainarekin jarraitzen du ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta aste honetan azukre-zorroak eta serbilletak banatu ditu Euskeraz Primeran! ekimenean izena emanda duten taberna eta jatetxeetan. Ostalari zein bezeroen artean euskararen aldeko jarrera bultzatzea eta lehenengo hitza, behintzat, euskaraz izatea da ekimenaren helburua.





Txosnagunearekin aurrera egingo dutela dio JHH-k

Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak “PSE-EAJren udal-gobernuak eta Jon Iraola alkateak txosnagunearen aurka izaten ari diren jarrera” salatu du. Erredakziora bidalitako idatzian esaten dutenez, “aurten ere oztopoak non-nahi aurkitu ditugu, baina, hala ere, aurki aurkeztuko dugu egitaraua”.

Iazko esperientzia gogoan, ikasturte berria hasi eta berehala hasi ziren Udalarekin harremanetan, “2025eko San Juan jaietarako herriak merezi duen txosnagunea lortu ahal izateko. Oraingo honetan ere zehaztasunez landutako hiru proposamen helarazi genizkion Udalari, bakoitzak sortu zitzaizkeen kalteak konpontzeko alternatiba eta guzti”. Hiru toki proposatu zituzten: “Proposamen sendoa eta kontrastatuak izan ziren, eta Udalari helarazi aurretik hauen bideragarritasun teknikoa ziurtatu genuen, bai trafiko eta baita azpiegitura aldetik. Baina, hasieratik, Udalak jarrera itxiarekin jokatu zuen, eta gure proposamen guztiak baztertu zituen, inongo arrazoirik eman gabe. Haien kontraproposamen bakarra txosnagunea Mekola eta Aldatze kaleen arteko parkean ipintzea izan zen”. Gauzak horrela, eta “Udalak adostasuna bilatzeko asmorik ez duela ikusita” gaur egungo tokirako proposamen berria ere aurkeztu zuten: “Udalak ur txorrotekiko duen kezka jabetuta, eta ahalik eta gehien babesteko asmoz, jantoki gisa erabiltzen dugun negutegia Txal-txa-Zelaiko eszenatokiaren ondoan jartzea proposatu genien, azpiegiturak txorrotak ez ikutzeko moduan”. Baina udal-gobernuko kide baten erantzunarekin harrituta daude: “Gobernu taldean erabaki dugu ur txorroten gainean ezin daitekeela ezer jarri. Estrukturak txorroak saihesten baditu ere, mahaiak gainean jarriko lirarteke eta, mahai horien gainean jango direnen apurra lurrera erortzen direnean, txorroten hodiak trabatu ahal dira”. Oztopoak oztopo, lanean jarraituko dutela adierazi dute.



Udal Dibujo Eskolako bi ikaslek saria jaso dute

Eibarko Margo Udal Eskolako bi ikasle saritu dituzte Elkar argitaletxeak antolatutako ilustrazio eta ipuin lehiaketan: Itziar Eirizek komikien kategorian lortu du saria, eta Nahia Martinezek eskolarekin txango bat egiteko dirulaguntza jaso du. Udal Eskolako irakasleak pozarren daude: “Zorionak berriz ere, neskak! Eta eskerrik asko gure ikasle gazteei, eskolatik egin-dako proposamenak aurrera eramateagatik. Maryam, Olatz, Ellen, Mara, Miguel Angel, Nora, Paule, Emma, Martina, Malen, Lennon, Itziar eta Nahia, denek oso lan ona egin duzue”.



Lan berriaren singlea kaleratu du Mise en Abye-k

Disko berria kaleratuko du Mise en Abye taldeak, eta lan berriaren singlea, *Fairy tale* izenekoa ere atera du. Ekoizpenean laguntza izan du taldeak: “Lehen aldiz benetako baxua izango dugu, Alex Daviesen eskutik. bateriak ere benetakoak dira oraingoan, eta ESnSE estudioetan grabatu ditugu abestiak. Mixinga eta masterizazioa egiteko Lars Andre Gussiasen laguntza izan dugu, eta singlearen azala Insomniak egin digu”. Plataforma guztietan entzun daiteke.



Angel Guenaga irakaslearen omenezko erakusketa

Bihar inauguratuko dute *Seguimos*, Angel Guenagaren omenezko erakusketa Untzaga gizarte zentroan. Horrela, artista eibartarrarekin marrazten eta margotzen ikasten aritu diren Untzaga gizarte zentroko ikasleek eskerrak eman nahi dizkiote irakasleari, eta bide batez ikasitakoa jendeari erakusteko aukera ere izango dute. Erakusketa Eibarko Artisten Elkartearekin batera prestatu dute (Guenaga bertako bazkidea da), eta ekainaren 1era arte egongo da zabalik, 19:15etik 21:00etara (astelehen, martitzen, eguazten eta barixakua), eta 12:00etatik 14:00etara zapatu eta domekan.

Bestalde, Eibarko Artisten Elkarteak akuarela inguruko master-classa antolatu du gaur arratsalde-rako, dohainik: Jose Luis Lopez Perez “Kubi” bizkaitarrak emango du, 18:30ean Portaleko ikastaro gelan.



No Limits taldearen kontzertua bihar Belekön

Biharko punk kontzertua antolatu dute Belekön tabernan, No Limits taldearekin. Bergarako taldeak aurtien kaleratu du disko berria, *Norantza aurkitu nahian* izenekoa, eta zuzenean aurkeztuko dute, 21:30etik aurrera.



Zabaldute Film Laburren Jaialdirako izen-ematea

Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatuta, azaroaren 3tik 7ra bitartean burutuko den 26. “Asier Errasti” Film Laburren Jaialdirako izen-ematea uztailearen 4ra arte egongo da zabalik, eta internet bidez egin beharko da, Udalaren webgunean. Lanak ere web orri horren bitartez igo beharko dira sarera, eta lehiaketari buruzko informazio zehatza ere Interneten eskuratu daiteke, www.eibar.eus webguneko “Tramiteak eta zerbitzuak” atalean (“Ikastaroak, lehiaketak eta tailerrak” azpiatalean).

Marokoko sukaldaritza tailerra

Gazte Safa elkarteak plater marokoarrak prestatzen ikasteko tailerra antolatu du maiatzaren 30erako. Saioa 17:00etan hasiko da, Portaleko 3. solairuan, eta



“prestakuntza teknikak, sekretuak eta prestatutako plateren dastaketa” eskainiko dituztela diote antolatzailleek. Izena emateko 631 330 218 telefonora deitu, edo gaztesafa@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Pagatxaren zine-forum feminista

Datorren barixakuan, maiatzaren 30ean, egingo da Pagatxa emakumeen elkarteak hilero antolatzen duen zine-forum saioa, 18:30ean Portalean. Hilabete honetarako aukeratu duten filma Barbra Streisandek zuzendutako “Yentl” film musikala da, eta proiektzioaren ondoren solasaldia egingo dute. Sarrera librea eta dohainik da, nahi duten guztientzat.





AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5	1	2				
		7					
			8			2	3
6	7			3		2	8
	9						4
8		5		9			3
7	6				8		
						9	
					6	8	5

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

S
U
D
O
K
U

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

8		1				5	6	
	2		5				9	
3							7	2
		4	9		1			8
				3				
6			4		5	3		
9	8							6
	6				7		3	
	1	7				2		9



AURKITU 9 EZBERDINTASUNAK

Maiatzak 23 / 29

BARIXAKUA 23

60. EUSKAL JAIA

17:00/19:00 Kalian Jolasian, Udalaren eskutik. Eibarko Bizikleta Plaza.

19:00 Tantanez Tantan.

Eibarko euskalgintzak antolatuta. Gantxilla Urkizuko iturritik Untzagara eramatea.

20:30 Kontzertuak.

Mugi Panderoa.

23:30 Mirari eta La Txama. Untzagako karpa.

AKUARELA KLASEA

18:30 Akuarela master-classa, Jose Luis Lopez Perez "Kubi"-rekin. Eibarko Artisten Elkartek antolatuta. Portalea (ikastaro gela).



DANTZA

19:30 Kaxaren ikasturte amaierako ikuskizuna. Coliseo.

ZAPATUA 24

ESKU PILOTA

10:00 "Amaña es la caña" VI. Esku Pilota Txapelketa (bikoteka). Kanporaketak. Amañako frontoia.



60. EUSKAL JAIA

10:00/15:00 Artisau eta baserritarren azoka.

Eibart, Eibarko Baserritarrak eta Debemenen eskutik.

11:00/13:00 V. Pala Txapelketa finalak. Astelena.

12:00/14:00 Herri kirolak eta bertsolariak.

Deportibo aurrean.

12:00/15:00 Kale animazioa

(Txistu Poteoa eta Triki Poteoa). Herriko kaleetan zehar. Goiz osoan:

Deportonbolia eta Gure Eskuren talo-postua.

Toribio Etxebarria kalea.

18:30 Dantzaldia, Duguna (Iruñea) eta Kezka (Eibar).

Deportibo aurrean.

19:30 Kale animazioa.

Kantu Poteoa, Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin. Deporretik hasita.

21:30 Kantu afaria.

Ondoren, gau-girotua DJ Miren G-rekin.

Untzagako karpa.

MUSIKA

21:30 Punk kontzertua, No Limits taldearen eskutik. Beleko taberna.



SEXU-BIZI

00:00 Gune Morea zerbitzua. Untzaga.

DOMEKA 25

60. EUSKAL JAIA

08:30/13:30 Argazki rallya, Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik.

12:00 Euskal Jaiko kalejira. Urkizutik Untzagara.

12:30 Euskal Jaiko dantza jaialdia: Arkaitz (Añorga) eta Kezka (Eibar). Untzaga.

13:30 Euskaraldiko amaiera ekitaldia. Untzaga.

14:30 Herri-bazkaria.

Untzagako karpa.

17:30 Erromeria: Patxi eta Konpainia. Untzaga.

19:30 Larraín-dantza herrikoia. Untzaga.

20:00 Larraín-dantza herrikoia. Deportibo aurrean.

TXAKUR-KROSA

10:00 VI. Kalamuara Igoera Solidarioa, Marcan Huella elkarteak antolatuta. Usartzatik abiatuta.

INTERPRETAZIO ZENTROA

11:30/13:30 Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa zabalik. Arrate (aterpetxea).

ASTELEHENA 26

HITZALDIA

18:00 "Resistencia Romani", Kera Emakume Ijito Elkartearen eskutik. Gaztelaraz. Sarrera libre. Andretxea.

ELKARRETARATZEA

18:30 Zezenzaleei udal-lokala lagatzearen kontra. Untzaga.

EGUAZTENA 28

DANBORRADA

19:00 Danborradaren entsegua, haurrentzat.

20:00 Helduen entsegua.

Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

EGUENA 29

DANTZA TOPAKETA

16:30 II. Gipuzkoako Gizarte Zentruetako Dantza Topaketa. Portalea.

AURKEZPENA

18:30 "5.000 bazkide baietz! Orain Harrera!", Harrera elkartearen eskutik. Arrate Kultur Elkartea.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 26ra arte:

- **GRACIA DE LA HOZ, JUAN ANTONIO PALACIOS, JOSE RAMON SAN JOSE eta JOSE CONCEPTES.**

(Portalea).

- **Eibarko Klub Deportiboko ARGAZKI TALDEA.**

(Topaleku).

- **JOSE CARLOS ROMERO.**

(Portalea taberna).

- **ARGIZAIOLA 2024.**

(Klub Deportiboa).

Ekainaren 1era arte:

- **"ANGEL GUENAGARI OMENALDIA".** Untzaga gizarte zentroko ikasleak eta Eibarko Artisten Elkartea.

(Untzaga gizarte zentroa).

Ekainaren 30era arte:

- **"GU ERE BAGARA".** Ines Bermejo eta Julen Nafarrete (Lagun Artean). (Andretxea).

Irailaren 28ra arte:

- **"ACHA HERRAMIENTAS S.L. 85 URTEURRENA".** (Armagintzaren Museoa).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 24an: 19:45, 22:30
- 25ean: 20:00
- 26an: 19:30

“Lo que queda de ti”
DRAMA



2025/Espainia/91’
Zuzendaria: Gala Gracia
Aktoreak: Laia Manzanares,
Angela Cervantes, Rui de Carvalho
Nekazal giroa/Musika

2 ARETOA

- 24an: 17:00, 19:45, 22:30
- 25ean: 17:00, 20:00
- 26an: 19:30

“Una quinta portuguesa”
DRAMA



2025/Espainia/114’
Zuzendaria: Avelina Prat
Aktoreak: Manolo Solo, Maria
de Medeiros, Branka Katic
Thriller/Drama psikologikoa

ANTZOKIA

- 24an: 17:00, 19:45, 22:30
- 25ean: 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- 26an: 19:30

“Destino final”
BELDURREZKOA



2025/AEB/110’
Zuzendaria: Zach Lipovsky
Aktoreak: Kaitlyn Santa Juana,
Teo Briones, Richard Harmon
Naturaz gaindiko/Sekuela

ANTZOKIA

- 24an: 17:00
- 25ean: 17:00

“Una noche en Zoópolis”
ANIMAZIOA



2024/Kanada/91’
Zuzendaria: Ricardo Cutis
eta Rodrigo Perez-Castro
Zonbiak/Abentura/Otsoak

EGUNEKO MENUA
asteleneetik ostiralera
13:00etatik 15:00etara

• ASTEBURUETAN
razioak, otartekoak,
plater konbinatuak...

• GOSARIAK egunero

• TALDEENTZAKO
menuak egiten dira

DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporcibar.com

FUNEUSKADI
Grup-akzioa

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar: Otola, 27

Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Elbar: Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdia (Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermusko bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **JOL**, eguaztenian 12 urte egin zenduaz eta! Musu haundi bat amama Edurne eta aittitta Josuren partetik.



Zorionak, **MALEN**! Bixar 6 urte beteko dozuz eta! Musu haundi bat Paule eta famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **ANAITZ**, domekan 7 urte beteko dozuz eta! Jarraitu hain alai. Etxekuen eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak, **ANNE** Lasuen, astelehengan 8 urtetxo bete zenduaz eta! Aitatxo, Amatxo eta Markelen partez.



Zorionak, **MARKEL**! Bixar 11 urte beteko dozuz eta! Musu potolo bat famelixakuen eta Hegoiren partez!



Zorionak, **CLAUDIA**! Atzo 13 urte egin zenduaz, neska haundi! Aitxitxa, amama, guraso eta zure anaixa Jonen partez!!!



Zorionak, **NIKOLE**, astelehengan 4 urte egingo dozuz eta. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **AITANA**, gaur 6 urte betetzen dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markel eta Maialenen partez.



Zorionak, **MANEX**! Gaur 4 urte beteko dozuz eta. Asko maite zaittugu! Etxekuon partez.



Zorionak, **XABI** eta **MARTIN**! 13 urte. Gure bizitzako ezustekorik polittena zarie. Jarraitu beti hain zoriontsu! Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **AIORA** eta **IHINTZA**. Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETKEA.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzako BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.



B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:

688 615 600

www.eguzkitzaetxea.eus

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 653214909.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
• Autokarabana perfilatua salgai, oso egoera onean. 2015 urtekoa eta 18.500 km besterik ez. Plaka solarrrak, hotz gailua, ohea irlan etb. 5 lagunentzako. 48.000€, negoziagarriak. 667376212.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Garajea alokagai San Pion. Itxia eta autoa garbitzkoarekin. 652775746.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 642025963. Rosa.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburu eta jaietan ere. 623968621. Rosa.
• Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta emakumeak zaintzeko. 615931344.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak pasiatzeko. Orduka. 653075865.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 614612521.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta etxeko konponketak egiteko. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita asteburuetan ere. Orduka. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 653214909.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 672965658.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita gauzez ere. 642761117. Paulina.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko (ziurtagiri soziosanitarioa) eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 631907532.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Externa. 631418130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 688655477.

4.2. Langile bila
• Emakume interna behar da, beste emakume bat zaintzeko. 671924724. Toñi.
• Odontologo orokorra behar da Mendarok hortz-klinika batean. Jardun partzial jarraia adostekoa: bi, hiru edo lau egun. Baloratuko da: euskara jakitea eta odontopediatria ezagutzak izatea. Bidali curriculum: odonto2025x@gmail.com
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.3. Galdu/Aurkitu
• I-watch erlojua (Iphon-ena) aurkitu dugu mendian. Jabeak 649031990 zenbakira deitu dezake.



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clínica estética

Medikuntza
- Dermatologia estetika
- Aurpegia gaztetzea
- Belizek

Kirurgia
- Belazalek, belariek...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe 943 206 044

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413

Plaza Barrio 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodríguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

45 Kolegiatu zbkia.

Psikologoak

GONZALEZ DE MENDIBIL

**PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ESA NIBRAISALDEZ

Urkizu, 13 - behe
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776

Sonrisalud Eibar Hartz Klinika: IA HAMARKADA BAT 3.000 EIBARTAR BAINO GEHIAGOREN IRRIBARREA ZAITZEN



SARAI HERNÁNDEZ, EIBARKO
KLINIKAKO ZUZENDARIA.

ABANGOARDIAKO ODONTOLOGIA, GUZTIENTZAT ESKURAGARRI

Eibarko erdigunean kokatua, Toribio Etxebarria kaleko 23. zenbakian, **Sonrisalud Hartz Klinikak** hamar urte beteko ditu kalitatezko odontologia eskaintzen, hurbila eta denon eskura. Ateak ireki zituenetik, **3.000 paziente baino gehiago pasa dira bertatik**, eta inguruko klinika ezagunenetakoa bihurtu da.

Bere giza ikuspegiari, puntako teknologiari eta finantzaketa-aukerak eskaintzen dituzten prezio eskuragarriek esker, **Sonrisalud Eibar erreferentziatzko zentro bihurtu da inguruko herrietatik ere**, eta gero eta jende gehiagok jotzen du hartz-zerbitzu profesional eta eskuragarriaren bila.

KLINIKA ERREFERENTEA EIBARTIK HARAGO

Eibartarrak artatzeaz gain, Elgoibar, Sorluze, Ermua, Mallabia eta Mendaroko herrietarrek Sonrisalud aukeratzen dute, **askotan ez baitute hartz-klinika espezializaturik edo eskuragarririk.**

"Elgoibartik gatoz familia osoa, hemen prezioak beste leku batzuetan baino askoz hobekak baitira, eta tratua ere zoragarria da. Desplazamenduak merezi du". Ane G., 41 urte

"Nire herria ez dago espezialistarik inplanteetan eta ortodontzia ikusezinean. Lagun batek gomendatu zidan eta aldea nabaritzen da, bai arretari dagokionez, bai prezioari dagokionez". Joseba T., 55 urte, sorluzearra

Klinikak **promozio eskusiboak eskaintzen ditu Eibarko eta inguruko herrietako bizilagunentzat**, hala nola deskontu bereziak hartz-inplanteetan. Horrela, kalitatezko tratamenduak egin daitezke, etxetik gertu eta dirutza ordaindu beharrik gabe.



TEKNOLOGIA, ESPERIENTZIA ETA BEREIZTEN GAITUEN TRATUA

Sonrisalud Eibarko lantaldea **15 urtetik gorako esperientzia duten profesionalak** osatzen dute, zuzendaritza mediko sendoa dute eta langile finkoak dituzte hasiera-hasieratik. Horrek konfiantza eta hurbiltasuna transmititzen du bisita bakoitzean.

Klinikak **puntako teknologia odontologikoa** eskaintzen du, eta tratamendu ez hain inbaditzaileen aldeko apustua egiten du. Gainera, **sedazio kontziente** eskaintzen du, irtenbide ezin hobea dena dentistari beldurra dioten pazienteentzat. Horrek, ebakuntza erosoagoak eta seguruagoak ahalbidetzen ditu.

ESPEZIALISTAK INPLANTOLOGIA, ORTODONTZIA IKUSEZINEAN ETA HORTZ-ESTETIKAN

Sonrisalud Eibar erreferentea da hiru alor nagusitan:

- **Hartz-inplantologia**, soluzio pertsonalizatu eta funtzionalekin.
- **Ortodontzia ikusezina**, diskretua eta eraginkorra, adin guztietara egokituia.
- **Hartz-estetika**, irribarre harmoniatua eta naturala lortzeko.

IRRIBARRE POLIT BATEK EZ DU ZERTAN LUXUA IZAN

Aho-hortzen osasuna premia bat dela jakinda, eta ez pribilegio bat, Sonrisalud Eibarrek **paziente bakoitzari egokitutako finantzaketa-aukerak eskaintzen ditu**, oztupo ekonomikoak ezabatuz eta edozein tratamendutarako sarbidea erraztuz, garbiketetatik hasi eta errehabilitazio osoetaraino.

"Nik ezin nuen dena bai-batean ordaindu, baina hemen finantzaketa-plan bat eskaini zidaten, tratamendua estutasunik gabe egiteko aukera eman zidana. Beste klinika batzuetan ez zidaten horrelako aukerarik ematen".

Luis M., 60 urte, Ermuko bizilaguna

Toribio Etxebarria, 23

943 231 414

sonrisalud.es

